

Iturriaren agurra txirrindularitza profesionalari

Profesional mailan hamaika urteko ibilbidea amaitzear da Mikel Iturria urnietarra / 2-3

AIURRI

Gau Beltza, hilaren 31n

Andoainen eta Urnietan ospakizuna antolatzeko lanetan murgilduta daude / 8-10

Malen Osa Ansa mendi-lasterkariak balentria egin du, Gurutze ama gogoan hartuta / 12

Irri jaia, igande honetan, Andoaingo Bastero Kulturgunean eta Plaza Morean / 15



AURREKONTU IREKIEN PARTE-HARTZE PROZESUKO AZKEN FASEA

Bozkatu zein hobekuntza egitea nahi duzun



Informazio karpa urriaren 25ean: Etxeberri plaza 10:00-14:30 eta San Joan plaza 17:00-20:00



Mikel Iturria, aurreko astean Xoxokan. Besabin egindako bideoa ikusgai dago Aiurri.eus webgunean. AIURRI

“Ez nago soldata batengatik sufritzen edo arrastaka ibiltzeko prest”

MIKEL ITURRIA EUSKALTEL-EUSKADI TALDEKO TXIRRINDULARIA

32 urterekin eman du bukatutzat bere txirrindularitza profesionalaren bidea; 11 urtean komeria asko eta poz batzuk izan ditu, Vueltako etapa bat irabazi izana, batez ere

gutzen dut, baina lepoarekin ezberdina izan da. Gorabeherak izan ditut, eta kosta egin zait lepoa bere lekura eramatea. Oraindik ere ez daukat istripua baino lehen, baina ziur sentitzen naiz bizikleta gainean eta disfrutatzen hasita.

Istripuko irudirik ikusi al duzu, osatze prozesuan zinela?

Ez dago irudirik, baina buruak ondo gordea du kolpearen unea. Askotan ikusi dut erorketa, bizikletan nabilenean batez ere.

Istripuko epaiketa zertan da?

Ez naiz sobera arduratu. Orain denbora gehiago izango dut, eta hasiko naiz arreta gehiago jartzten. Italiako mutil gazte baten kontaktua lortu nuen, aritzen naiz berarekin solasean tarteka, eta hark bai, egoera gogorra: 23 urterekin ibiltzeko komeriekin. Segurtasuna funtsezkoa da guretzat, eta lasterketa hartan motor hark akats larria egin zuen. Ea zer gertatzen den.

Bizitza normala esan duzu, baina zure entrenamenduak ikusi eta astebatzuk atzera 300 kilometroko saioa egin zenuen.

Bai, gustatzen zait urtean behin edo halakoak egitea. Betiko errepide eta igoyeratik ateratzeko nahiak bultzatuta egin nuen. Iruñean bizi den lagun batek handik Urnietara elkarrekin etorriko ginela esan zidan, eta hala egin nuen. Kostatik Deba bailara osoa, Arabako Lautada, Opakua, Ameskoa, Lizarra, Iruñea, Irurtzun eta etxera. Goizeko lehen argiekin irten eta ilunabarra zela etxera. Txirrindulari naizela sentitzeko egin nuen. Aurrerantzean akaso ez dut halakorik egiteko aukera, denbora edo gaitasunik izango.

Arreta eman dit diozula bizikletan disfrutatzeke egin zenuela: 10 ordu, 300 kilometro. 20 urte bizikleta gainean daramatzazunean.

Profesionala zarenean zaletasuna ofizio bilakatzen da sarri, eta ez duzu hainbeste disfrutatzen. Ez dut haserre bukatu bizikleta edo txirrindularitzarekin, lagunak eta familia ditut bizikleta zaleak... Zergatik ez haiekin gozatzen jarraitu, ezta? Profesional izan naizenean serieak egin behar nituen, ariketa jakin batzuk, ezin polikiago joan, eta orain ba askatasun gehiago daukat: kirola egiteko, mundua ezagutzeko oso tresna polita da, eta gauzak normal, bizikleta alboan izango dut beti.

Andoni Urbistondo URNIETA

Lasai sumatzen zaio Mikel Iturriari (Urnietara, 32 urte), erabaki garrantzitsua hartu berri badago ere. Bere bizitzako herena jan dion aktibitatea, txirrindularitza profesionala alboratu du betirako, eta bizitza berrirako prestatzen hasi da. Lasai hartuko du, amaren tabernan ikasi, ikasketaren bati ekin, eta gero gerokoak. Ez pentsa bizikleta sotoan usteltzen utziko duenik, lagunekin lasaigo ibiltzen jarraitzeko asmoa baitu, disfrutatzen.

Osasuna zer moduz? Altxatu hartu berri duzu, sei hilabete eta gero.

Nahiko ondo, bizitza normala egiten hasita. Orkatilan eta lepoan oraindik arazo txiki batzuk badituz, baina prozesua ondo doa.

Gogorra izan al da prozesu hori?

Luzea izango zela banekien. Momentu onak eta txarrak edukitu ditut. Esango nuke orkatilako lesioa ondo eta azkar osatu dela. Lepoarekin arazo gehixea izan ditut. Hezur dezente hautsi ditut nire kirol ibilbidean, hausturen osatze prozesua eza-



2019ko irailean Espainiako Vueltako etapa irabazi zuen, Nafarroako lurretan. Gogoangaria izan zen arratsalde hura txirrinduzaleentzat. MURIAS

Aro bat ixtera zoaz. Txirrindularitza uzteko erabakia hartu duzu.

Ez da aurreko hezur mamitu den ideia. Beste urte bat edo bi egiteko gai sentitzen nintzen, baina erorketa larria jasan nuen Italian, eta horrekin Espainiako Vueltan lehiatzeko atea itxi zen. Nire ametsak gauzatzeko ilusioa galdu nuen. 2024an Vueltarik ez, Giroa eta Tourreko atek itxita aspaldi... 2025ean ere Vueltako atek itxita izango nituzke, gehitu beste lesio larri bat, motibazioak behera... Puntuak kontuarekin bertako edo urruneko lasterketak korritu behar nituzke, Txinan edo Malaysian, eta ez nau sobera motibatzen. Ez nago bizitza honetan soldata bategatik sufritzen edo arrastaka ibiltzeko; nire pasioa da txirrindularitza, baina profesional izateko eskaintzarik ere ez dut jaso. Ez nire taldearena, ez beste inorena, eta erabakia hartu dut. Familia, entrenatzailea, fisioarekin hitz egin nuen, eta erabakia hartu.

Lasai sumatzen zaizu erabakiarekin.

Bai, bai. Ohean egun asko eman ditut hanka hautsita, bi, hiru urte barru non ikusten naizen pentsatzen... Hausnartzeko denbora izan dut, eta erabakia jakinarazi nien. Lo egiteko komeiak izan nituen erabakia hartu nuen gauean, baina nire bizitzako heren bat bizikletari lotuta pasa dut, eta normala era bada malko batzuk isurtzea.

11 urte profesionalen atzera begirakoa egin eta zer ikusten duzu? Kopuru polita da. Txikitan esan izan balidate halakorik egingo nuela, edota profesionala iritsiko nintzatekeela... Gainera nahiko tarte txarra egokitu zaidala esango nuke: Euskaltel desagertu, afizionatuetara bueltatu,

Euskal Herrian lasterketa asko desagertu ziren... Halere borroka egin dut beti, eta 11 urte irauteak badu meritu. Zerbait ondo egin dudaren seinale.

11 urte eta ia beti alanbrean, ezin jakin hurrengo urtean jarraitu ahal izango zenuen. Lagundu zaitu horrek erabaki gogor hau hartzerakoan?

Bai, dudarik ez. Kolpeek indartsuago egiten zaituzte. Lehen bi urteak izan ziren gogorrenak, profesionalen bi urte egin eta kitto... Gero urtebeteko kontratuak... B plana prest izaten duzu, eta orain ere hala izan da.

Badago zure kirol ibilbidean Urdazubi arteko bidea, eta ostekoa? Vueltako etapa irabazi zenuen 2019an, lorpen itzela!

Oihartzuna eduki zuen, mapan jarri ninduen. Etapa garaipena ere berezia izan zen: 25 kilometro bakarrik buruan, tentsio handia, harrapatu egingo nindutela zirudien... Gertukoek zenbat sufritu zuten jakinarazi zidaten, eta akaso ni neu izan nintzen egun hartan gutxien sufritu zuena. Baina egia da, zerbaitetik ezaguna izango da. Irailak 4a ez dut inoiz ahaztuko.

Garaipen hark beste ate batzuk irekiko zizkizula pentsatu genuen, koskaren bat igo, baina ez zen posible izan.

Mundu honetan interes asko daude. Gauza askok egin behar dute bat halako jauzi bat emateko, eta ez zen eman. Ni ez naiz oso trebea irabazten, edo ihesaldietan sartzen. Txirrindulari langile moduan ikusi dut nire bidea, eta World Tour mailan lan hori egiteko gaitasuna eduki dudala esango nuke. Etxeko taldeetan moldatu behar izan dut, eta gustura. Nire garaipen

handiena ere etxean lortu dut. Donostiako klasikoa ere lehen pasatzen Urnietatik, ihesaldian sartuta, eta hori ere polita izan zen niretzat.

Txirrindularitzaren bilakaera ezagutu duzu modu gordinean. Maila ikaragarri hobetu da, eta gazteak egurrean datoz oso gazte.

Pandemia ondoren dena aldatu da. Erritmoa handitu egin da, errekor guztiak hautsi dira Tourrean. Ez batzuk, ziklista askok baizik. Orain ditudan gaitasunekin burutik eta fisikoki %100 egin behar duzu neurria emateko, eta nik zalantza nituen, batez ere buru aldetik, tropelela bueltatzen nintzenez zer esango ote zidan. Azken urteetan asko sufritu dut errepideetan, gaixorik batzuetan, eta horrela ibiltzeak ez du merezi. 20 urterekin bai, agian, egun ez.

Ez dizute kontratu berritzerik eskaini.

Ez, eta horrek txirrindularitza uzteko erabakia azkartu du. Akaso borrokan segitu behar nuen, beste talderen bat bilatu, baina ez dut indarririk izan.

Arreta ematen du Euskaltel-Euskadik eskaintzarik egin ez izana; Murias taldeak, esaterako, erietxean izter hezurreko haustura osatzen zeundela eskaini zizun kontratu berria.

Hala da, bai. Garai ezberdinak dira, orain neu ere zaharragoa naiz. Murias-ekin nintzenez 25 urte nituen, egun 32... Talde eta enpresa bakoitzak kudeatzen ditu gauza horiek, eta ez daukat zer leporaturik inori.

Bizitza normalaz: kalean lagunekin ikusi zaitugu poteoan, korrika... Nola ari zara egokitzen, dieta zorrotzik gabe, entrenamendu gogorrik gabe?

Gauza ez da asko aldatu. Jarraitzen dut gimnasia joaten, oinez, bizikletan... Lesioa osatzeko biderik onena hori da. Lehen ezin nuen bazkaltzera edo afaltzera joan lagunekin, orain bai. Moldatuko naiz.

Zer duzu buruan? Zer egingo duzu?

Urtebete lasai hartu, amarekin tabernako ofizioa ikasi pixkanaka (Andoingo Irrintzi taberna). Ikasteko asmoa badaukat, Lanbide Heziketako zerbait, eta gero gerokoak. Presarik ez daukat, langabezia saria badut, eta ikusiko da. Badaukat ideia bat nondik jo, baina lasai hartuko dut. **Beste zerbait esan nahi duzu?** Eskerrak eman lagundu nauten guztiei.



2023ko uztailaren 29an Donostiako Klasikoa eskualdean barrena igaro zen. Mikel Iturria Urnietara tropelburuan iritsi zen, iheskide taldean. AIURRI

Motzean

Ziklista bat:

Ez naiz oso idolo zalea, eta txirrindulari guztiak ditut estimuan, denek sakrifizio asko egiten dituztelako, baina Mathieu Van der Poel esango nuke. Ziklo krosean aritzen da, mendikoarekin... oso konpletoa da.

Euskal ziklista bat:

Iban Mayo, Haimar Zubeldia, David Etxebarria, Samuel Sanchez... Euskaltel-eko urrezko garaioak. Laiseka ere, Luz Ardiden-en lortu zuen garaipenarekin.

Gaur egungo bat:

Mikel Bizkarra. 10 urte egin ditut berarekin, urte asko logelan elkarrekin, kontzentrazioetan. Erreferente izan da nire entrenamenduak ondo egiteko eta botika ona izan da lesionatuta egon izan naizenean. Errepide ertzetik animatuko dut orain. Berari eta denei, denek merezi baitituzte txaloak.

Euskal Herriko mendate bat:

Iturzaeta Larrainetik. Bi edo hiru aldiz egin dut, eta oso oso gogorra da. Bagargiak ere egingo nuke. Jaitsi dut Iratitik, baina igo ez.

Eta atzerrian?

Mont Ventoux. Gogorra, bero handia, biluzik azken kilometroetan... Oso mendate berezia. Eta Tourmalet, nola ez. Elurretan pasa dut, 35 gradurekin... Giro latza beti han.

Zure kirol ibilbideko momentu bat:

Urdazubi, noski, eta Donostiako klasikoa iaz, Urnietatik lasterketa buruan pasatzea.

Kirol zuzendari bat:

Gorka Gerrikagoitia. Urte pare bat egin nituen berarekin, baina markatu ninduen. Gauzak transmititzeko modu ona zeukan.

Zer irabazten du Mikel Iturriak txirrindularitza utzita?

Deskonexioa. 24 orduko lana da, entrenamenduak bost ordukoak badira ere. Gero dieta dago, atsedena hartu... ez duzu askatasunik, eta orain izango dut.

Eta zer galdu?

Ametsa, pasioa. Eguneroko erronkak... Nire bizitzako heren bat bizikletari lotua eman dut.

Urnietako txoko bat?

Xoxoka. Txikitan askotan igotzen nintzen bizikletan. Entrenamendu asko egin ditut bertan gora, lasterketa bat ere irabazi nuen jubenetan hemen ihes egin eta Andoainen helmugaratu.

Zure marka ere baduzu, hobetzen saiatu nahi duenarentzat. Zenbat da?

Zortzi minutu azpitik geltokitik hasita. 26-27 kilometro ordukoa, batez besteko abiadura. Urnietako denbora onena da.

Xabier Lasa URNIETA

“Indarkeria sufritu duten urnietarrak entzunez. Aitortzarako bideak argitzeko ikaskuntzak” txostena osatu zuten orain hilabete batzuk. Horretarako, erabat “aberatsa eta ikasgarritzat” jotzen duten entzuketarik ekin zioten 2019an, Urnietan sufrimendu motaren bat jasan zuten bederatzita pertsonekin.

Txostena argitaratu ostean bizikidetzaren lanketan etapa bat amaiturik, etorkizunean zer egin daitekeen hausnartzeari ekin zion hirukoteak. Horretan, atzera begira jarri, eta bizi izandako esperientzia pertsonala izan dute hizpide, ondorengo erreportajea.

Topaketak, giro gozoan

Herritarren artean sortu izan diren lubakiak kontuan izanda, egin dituzten topaketa edo entzuketak horiek bereziki zaindu egin zituztela nabarmendu du Rosa Elosegik. “Urnietan, leku diskretu eta goxo batean egin genituen topaketa gehien-gehienak. Konfiantzazko giroa sortu nahi izaten genuen, eta hori oso kontuan hartzen zuten. Jakina, herrikideak izatea ere lagungarri egin du guztia; mesfidantza, izatekotan, politikoekin gehiago daukate”.

Goian aipatu txostenean idatzita utzi zuten, konstatazio bati eutsi zioten hasieratik: “Urnietan, beste hainbat herrietan bezala, askotariko sufrimenduak bizitako pertsonak bizi dira. Bizilagunak izan arren, ordea, askotan ez ditugu ezagutzen sufrimenduzko esperientzia horiek. Beste batzuetan, ezagutu arren ez gara hurbildu geure elkartasuna adieraztera, urteetako indarkeriak eta tentsioek lubakiak sortu baitituzte geure artean”.

Nolanahi ere, hasierako uste hori motz geratu zela aitortu dute hiruek ere, Joxpi Lasak azpimarratu duenez: “Nabarmendu egin zaigu aurrez geneukan pertzepzio hori. Bizi izan dituztenak oraindik ere gordinagoak izan direla konturatu ahal izan gara”.

Elkarrizketatu gehienek harrituta jaso zuten topaketa egiteko proposamena lehenbizi, baina egitasmori buruzko beharrezko azalpenak eman ondoren, eta elkarrizketa eduki ostean batez ere, biziki eskertuta ager-



Maialen Lizarralde Baketik elkarteko kidea, Joxpi Lasa, Mertxe Estebez eta Rosa Elosegik. AIURRI

Urnietako Bizikidetzaren Taldea

Mertxe Estebez, Joxpi Lasa eta Rosa Elosegik herritarren Bizikidetzaren taldea osatu dute Urnietan azken urteotan, bakegintza lantzen duen Baketik elkarteko Maialen Lizarralde bidelagun

tu direla ere azpimarratu du Lasak. “Kalean-eta topatzen garenean, sumatzen dugu inor ez dela damutu gurekin elkarrizketa eduki izanagatik, baizik eta estimatzen dutela beren testigantza entzun izana”.

Sentsazio gazi-goza

Entzuketaren prozesuak utzi dizkien sentsazio eta sentipenengatik galdetuz gero, luze eta zabal jo dezake erantzunak, barru-barruraino sartu baitzaie. Baina bat egiten dute “gazi-goza” izan dela erantzuterakoan. “Gertukoa eta eskuzabala izan da herrikide hauek egin diguten harrera. Eskertzekoa da gure proposamenari nola erantzun dioten, beren bizitzak, bizipenak zabaldu baitizkigute, partekatutuz gurekin. Hunkigarriak zeharo izan dira guztiak, eta izugarri ikasi dugu; enpatia ariketa polita egiten lagundu

digute, besteak beste”, adierazi du Mertxe Estebezek.

Gazia zergatik izan den aipatu du Lasak; “beraiekin entzute ariketa egitea hutsa aitormen pribatu xume baten gisa har daiteke. Baina geratzen zaigun uste sendoa da aitormen publiko falta zaiela. Ekimen hori funtsezko pausoa da justizia jaso dezaten ondoren”.

Urnietan, bide luzea jorrazteko

Aitormen publikoaren arloari tiraka, inguruko herrietara begira jarri da Elosegik: “Andoainen, Lasarte-Orian, Hernanin, Amasa-Villabonan... ikusten dugu giza eskubideen urraketan edo sufrimenduen gainera mapa egina daukatela. Urnietak hori premiazkoa dauka, memoriaren lanketarekin aurrera segitzeko asmorik baldin badago”.

Elosegik gaineratu duenez, 1936ko gerrari buruz Urnietan

egin den lanketa ere zer pentsatua ematen die: “Atera zuten liburua, mardula, baina horretan geratu zen ekimena. Ez da ekitaldi publikorik egin biktimekin geroztik, ez dago tokirik biktimen izenak bildu eta oroitu dituen...”.

Ustezko gabezia horri ekiteko orduan, tresnen falta baino gehiago borondate kontua dela iruditzen zaie. Hala dio Estebezek: “Politikoei erata daukate Bizikidetzaren Mahaia. Baina ez dakigu zein ote den geldirik egotearen arrazoia: udalgintzan gaia hirugarren edo laugarren mailakotzat jotzen dutelako, alderdien arteko desadostasunak badirelako, gaiak daukan osagai delikatu eta emozionalak paralizatzen dielako, presio sozialik sentitzen ez dutelako...”.

Estebezek gaineratu duenez, “baditugu elkarteak (Aranza-

di, Argituz, Baketik...) eskarmentua pilatuta dutenak hantzen, eta prest daudenak beren ekarpenak egiteko. Guk egindako bidea ere, baliagarri izan daiteke, bere xumetasunean. Azken batean, balioa eman diogu pentsamendu edo mundu desberdinetako jendea biltzeari, elkar entzuteari, hautsitako harremanak berreskuratzeari, eta hori guztia, aurrean duzuna epaitu gabe eta berarekin enpatia sentituz gauzatzeari”.

Presio handiegirik ez, urnietarren aldetik

Bestalde, urnietarren aldetik bizikidetzaren murgiltzeko gogo bereziki ez dutela sumatzen aitortu du Lasak. “Azken urtetan egin izan dira bizikidetzaren gainera jardunaldiak, mahai inguruak, antzerki-saioak... Baina egia da Urnietan, oro har, ez dugula sumatzen aparteko kulturarik gaia lantzeko, ez gizabanakoen aldetik, ez elkarrekin aldetik”.

Gaiarekiko apatia hori ez dela Urnietara mugatu behar gogorarazi du Lasak. Euskal Herrian zabaldua dagoela zoritxarrez, Lasak aipatu duen bezala: “ETAk eman zion bukaera bere jardun armatuari, eta, geroztik, badi-rudi bakean bizi garela eta ez dagoela zertan ezer landu beharrik”.

Estebezek gaia aipatu gero jende ugariaren erreakzioa zein den deskribatu du, “iraganean nahikoa sufritu genuela, familien arteko harreman batzuk hautsi egin zirela, eta aurrera begiratu behar dela, entzuten zaie batzuei. Kasik, 1936ko gerra ostean etxe eta sukalde askotan txikitan entzun izan genuenaren antzera”. Pena sentitu ohi du Lasak halako jarrerak entzun aldiko: “Elkar entzuteko eta enpatizatzeke ariketan eta gainerako memoriarako urratsetan ez bagara ahalegintzen, nekez eraikiko dugu gizarte osasuntsurik”.

Ezkortasun horren gainetik, ekimenei eustearen aldeko mezua zabaldu nahi du hirukoak: “Sekula ez da izango askorengana iritsiko den gaia, baina masa kritikoa txikia mantendu behar da, eta ahal den gehiengotik plazaratu. Goiz ala berandu, batzen joango da gutxieneko sentiberatasun daukan herritar hori”.

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



Gernika-Palestina ekimenak deituta

Urnietan, Andoainen eta Euskal Herrian barrena "berehalako su-etena eta genozidioaren amaiera" aldarrikatu zuten, astelehen iluntzean deituriko bilkuratan. "Munduan Gernika gehiago egon ez daitezen, bakearen eta justiziaren aldeko deia darra" egin zuten.



AIURRI



AIURRI



Astelehen goizeko irudia.



Baserritarren aldeko ekintzailea

Urnietako Oiamar baserriko Juan Goenaga Ansa hil zen urriaren 20an, 87 urte zituela. Juani San Sebastianen senarra zen eta Iñaki, Pilare, Gurutze, Xabier eta Arantxaren aita zen.

Juan Goenaga lehen sektorean eragile nekaezina izan zen urtetan, eta, horregatik, eskerrak eman nahi izan dizkio ENBA sindikatuak astelehenean zabaldu zuen oharrean, "Gaur goizean joan zaigu Urnietako Oiamar baserriko Juanito. Gipuzkoako lehen sektoreko kooperatiba, sindikatu eta beste hainbat ekimenetako sortzailea. Gipuzkoako ENBAko presidentea den Iñaki Goenagaren aita. Goian bego!".

Kamioia trabatuta, maiz errepikatzen den egoera Sorabillan

Urrian, birritan gertatu da: Itasan geldialdia egin behar duen kamioi bat trabatuta geratzea, Igeluts baserriko bidean. Azkena astelehenean izan zen. Zorionez, uste baino lehenago, atzera egiteko aukera izan zuen gidariak. Hamabost egun atzera, bi egunez izan zen kamioia bide bazterrean. Orduan, bertako baserritarren eta udal zerbitzuen laguntzarekin irten ahal izan zen.





Iosu Ozaita Ibarran jaio eta Baliarrainen bizi da. Ikerketa antropologikoa egin zuen, Gau Beltza ardatz hartuta. Egunotan hitzaldi-sorta eskaini du Euskal Herrian barrena. AIURRI

“Euskaraz ondo pasatzeko aukera eskaintzen digu Gau Beltzak”

JOSU OZAITA ANTROPOLOGOA

Urki dantza taldeak hitzaldia antolatu zuen aurreko astean, Andoainen. Mapari begira jarrita, Gau Beltza ospatzen den udalerrien kopurua esponentzialki hazten ari da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Euskal Herriko mapari begira jarrita, Gau Beltza ospatzen den udalerrien kopurua esponentzialki hazten ari da. Ohitura zaharra ikertzeari ekin zion Ozaitak, eta duela lau urte haurrentzat ipuina argitaratu zuen. Urria iritsita, herriz herri ibili ohi da ospakizunaren nondik norakoak azaltzen. Aurreko astean Bastero Kulturgunean hitzaldia eman zuen, Urki dantza taldeak gonbidatuta.

“Gau Beltza” liburuaren egilea zara, Joseba Larretxerekin batera, Txalapartak 2020an argitara eman zuena. Orduko hartan irudikatuko zenuke liburuak eta ospakizunak halako soka izatea?

Horren aurrekoa da "Itzalitako kalabazaren berpiztea", Jaime Altunarekin batera egin nuen ikerketa etnografikoa. Oinarri guztia, mami guztia hor hurbildu genuen eta egindako ikerketa haurrei eskaini asmoz ipuina idaztea erabaki nuen.

Eta espero zenuen gero horrelako soka izatea gaiak?

Ez. 2016an egin genuen ikerketa, duela 8 urte. Antropologoa

naiz eta antropologian teknika inportanteena da bertan egotea, behaketa parte-hartzailea egitea, herrietan ibiltzea. Orduan oso festa gutxi zeuden. Bazen Arimen Gaua Elgetan, Bergaran eta Oiartzunen. Baina ez ziren asko. Urtetik urtera gehiago zabaltzen ari da, indar handiarekin, gainera. Aurten, loraldi are handiagoa biziko dugulakoan nago. **Oro har, batetik bestera zer da entzuleek gehien egiten dizuten galdera?**

Haurren kasuan, eurentzat oso erakargarria da Gau Beltzak elementu erakargarri asko dituelako: iluntzean da lagunartean egiten den ospakizuna. Batzuentzat aurreneko aldia da iluntzean lagunekin aterako direnak. Xarma badu horrek. Bestalde, mozorroa dago. Jantziak transformazio modukoa eragiten du eta horren barnean giro sortzen da.

Azkenik, sustoa edo beldurrak eragiten duen adrenalina dago. Eta ahaztu gabe goxokiak eta, hainbat kasutan, gaztainak. Haurrentzat eta gaztetxoentzat, beraz, oso erakargarria da.

Gurasoei dagokionez, badakite beste herrietan Gau Beltza antolatzen dela, baina ez dakite ondo berreskurapen lan bat den edo ez. Jakiteko eta ezagutzeko gosez dira. Hainbat herriatan bada Halloweenen jaiarekiko erreakzio bat. Deserosotasun batetik sortutako ekimena da, Halloween indarra hartzen ari delako eta haren alternatiba modua antolatzen da Gau Beltza. Baina beste udalerrri batzuetan ez dago beraienean Halloween eta Gau Beltza antolatu dute, nahi dutelako eta zerbait berria delako. Osagai erakargarriak dauzka, baita helduentzat ere. **Bada ildo bat hizkuntzari eta euskalgintzari loturikoa. Eta hori, berez, albiste pozgarria da.**

Nik uste dut gakoetak hori dela eta potentziltasun handia du zentzu horretan. Euskaraz aisialdian ondo pasatzeko aukera eskaintzen digu Gau Beltzak, eta elementu oso erakargarriekin. Euskararentzat positiboa da.

Iraganean bazen Gau Beltza, hainbat lekukotzen arabera. Gerra ondoren egon zen jazarpenaren beste adibide bat da etenaldia. Zure liburuan aitona jai haren berri ematen dio bilobari.

Aldaketak eman dira Santu guztien egunaren harira. Nik gogoan

dut txikitan apain jantzita hilerira gindoazela eta ondoren bazkaltzeko familian elkartzen ginela. Hori desagertuz joan da, elizak eta hari loturiko ohiturak galdu diren bezala.

Ikusi genuen bazegoela mugimendu bat Halloweenen bueltan antolatzen ari zena. Jendea mozarrotuta ikusten genuen, txirrina jotzen zuten etxeetan... Era berean, Oier Araolazak egindako bilketaren ostean, zabaldu zen albistea hamarkada batzuk atzera gure aitona-amonak kalabazekin jolasten aritzen zirela. Kalabazak baratzetik lapurtu, aurpegi forma eman, kandela bat piztu eta bidexkan kokatzen zutela jendea beldurtzeko. Elementu horiek guztiak antropologo batentzat oso erakargarriak ziren, eta ikerketa egiteari ekin genion. Jakin nahi genuen aitona-amonen kontua zer izan zen. Bada, Euskal Herrian barrena ibili ginen, herri askotan galdezka. Eta nahiko orokorra da izan bazela zerbait. Baina gehiago zen bihurrikeria. Testuinguruan jarri behar dugu orduko errealitatea. Ez zegoen, egun bezala, hainbeste argi kaletan. Orain kalean argia nonahi dago, gau osoan. Garai hartan bazegoen farola bat plaza erdia, eta askoz gehiago ez. Eta, bestalde, jendea ez zen autoz mugitzen. Ibilbidea oinez egiten zen eta, beraz, bidean kalabazarekin topatzea beldurgarria zen. Udazkenean egiten ziren horrelakoak, baina bereziki, urriaren 31n, azaroaren lehenean eta 2an, hildakoak oroitzeko egunekin bat eginez. Bazen ustea, garai hartan, arimak hurbiltzen zirela egun horietan eta kalabaza batean aurpegi bat ikustea beldurgarria izaten zen.

Antropologiaren ikuspegitik, zer nolako garrantzia du jaia antolatzek?

Antropologian ikertuta dago festak ez direla festa huts, jaiak ez dira festa bakarrik. Jaiaren barruan balioak, emozioak, ideiak daude... Kasu honetan, inguru osoan eragiten duen ekimen bat da. Gau Beltzak hartu ditu ezauzgarri batzuk, emozioen ikuspe-

"AURREKONTU EKONOMIKOA BAINO GEHIAGO, LANKETA EGITEA ESKATZEN DU GAU BELTZAK"



Josu Ozaita Bastero Kulturgunera hurbildu zen hainbat lagunekin. AIURRI

gitik indartsuak direnak. Transmisioaren ikuspegitik kalabaza aipatuko nuke. Lehen zen bihurrikeria bat, eta garai hartan gurasoek errieta egiten zieten horrelakoak egiteagatik. Baina orain festak hartu du protagonismoa.

Gaztainak aipatuko nituzke, bestalde. Goxokiak haurrentzat beti dira erakargarri, baina astero jaten dituzte. Eta gaztainak urtean behin jaten dira. Gutizia bilakatu da gaztaina. Horren bidetik natur garaian murgiltzen gara. Garaian garaiko fruituak dira kalabaza eta gaztaina. Are gehiago, hainbat eskolatan barazkiaren hazia hartu eta maiztean eskolako baratzean landatzen dute. Kalabaza hazten ikusi eta eguna iristean aurpegiaren forma ematen diote.

Eta, horretaz guztiaz gain, heriotza lantzeko aukera ematen du gaiak. Batzuetan modu ariean, beste batzuetan serioitasun handiagorekin. Nolanahi ere, presentzia hartu ohi du heriotzak. Garaiotan garrantzia ematen diot heriotza bizidunen aldera ekartzeari, tabu modukoa bilakatu baita. Eta heriotza bizitzaren parte da, eta Gau Beltzak heriotzaz hitz egiteko aukera ematen digu.

Halloween/Gau Beltza bitasun horretan, nork nori egiten dion itzal galdetu zizuten Berrian. Eta zure erantzuna ez zen niretzat oharkabean igaro...

Egia esan nahi badizut, ez dut ondo gogoan erantzuna.

"Halloweenek itzal egingo dio Gau Beltzari?" galdetu zizuten. Eta zuk honako hau erantzun: "Alderantziz izan dela esango nuke. XXI. mende hasieratik ari da Halloween festa zabaltzen inguruan: haurrek, ikusi, eta ospatu egin nahi zuten, baina ospakizun horrek zalantzak sortu dizkie guraso edo aisialdi talde batzuei. Antolatu, eta Gau Beltza ospatzen hasi dira. Nolabait, herri-rik sortutako festa bat da, herrikoia. Halloween ez da Gau Beltza bezala antolatutako festa bat, baizik eta taberna batek edo komertzio batek, kanpaina ikuspegitik, egindako dekorazioa, edo haur batzuek beren kasa etxez etxe egiten duten gozoki bilketa".

Gau Beltza indartsu ari da loratzen. Ikuspegi historikotik, ospakizun guztiak eraldatzen dira. Halloween ez da antolatzen den festa bat. Bere garaian talde txikietan egiten zen, "truco o trato" eskean ibiltzeko. Ondoren, telebistatik sartu zitzaigun eta egutegi kontsumistan sartzen den ekimen bat da.

Baina Gau Beltza antolatu egiten da, hainbat kasutan elementu oso erakargarriekin. Herrietan antolatzen denean jende pila bat elkartzen da. Indar erakustaldi handia da.

"GAU BELTZA INDARTSU ARI DA LORATZEN EUSKAL HERRIAN BARRENA"

Erreakzio modura sortu da, hori egia da, baina beste hainbat tokitan bere horretan sortu da festa. Baliarrainen bizi naiz, herri txiki batean, eta han ez zegoen Halloween. Ez zegoen alternatiba bat sortzeko beharrik. Baina bai beste behar batzuk, esaterako, haurrak protagonista izango diren ekitaldiak antolatzea. Horrek herrian, komunitatean eragina dauka. 6 eta 10 urtekoak dira nire haurrak eta Gau Beltza beren festa da. Halloween badela jakin badakite, baina Gau Beltza ospatzen dute eta jai hori bere herriaren parte dela sentitzen dute.

Zein elementu oinarrizko izan behar ditu Gau Beltzak?

Ikusten ari gara badituela ezauzgarri komun batzuk. Zerrorek aipatu duzu bat. Euskaraz da eta Euskal Herri-rik pentsatutako jaia. Euskal kulturatik pentsatuta dela esango genuke, dituen elementuengatik. Euskal kulturaren eta euskal jaietan presentzia handia dutelako. Kalabaza, puska-biltzea izan daitezke. Aspaldian komunitatean elkartu eta etxez etxe ibiltzen diren, sobera zuten janari hori emanez. Batzuk arrautzak, besteek txerriak... gero denak elkartu eta denen artean jaten zuten. Gau beltzak zentzu hori hartu du hainbat udalerritan. Izan ere, aspaldiko neguko ohitura hori galdu zen eta Gau Beltzarekin lotu dute berriro. Naturarekiko lotura aipatu beharko genuke, ezinbestean.

Kalabaza eta gaztaina hizpide izan dugu. Mozorroa ere aipatuko nuke. Irudimena eta sormena baliatuta, etxean ditugun elementuekin osa daiteke mozarroa. Eta, azkenik, mitologia lantzeko aukera ematen du egunak.

Bestalde, ez dago formula bakarra. Andoainen ikusi duguna da auzolanean aritzeko aukera polita dela. Behar da norbait jaia bideratzeko baina badago euskaraz eta taldean egiten den jaia gauzatzeko gogoia. Zure esperientziaren arabera zein eredu nabarmenduko zenituzke?

Aipatu duzuna gakoetako bat da. Herri bakoitzak bere formula bilatu behar du: Ez daude bi Gau Beltz berdin, ez baita berdinak diren bi udalerrri. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu, bere izateko era... Bakoitzak bere gakoa aurkitzean datza arrakasta. Baliarrain 150 biztanleko herria da eta, alde horretatik, baditu abantailak eta gabeziak. Gurean puska biltzea egiterik badago. Erreterria, aldiz, 40.000 biztanleko udalerrria da eta sekulakoa antolatzen dute. Hamazortzi talderen artean egiten da eta, beraz, jaiaren atzean antolaketa handi bat dago.

Aurrekontu ekonomikoa baino gehiago, Gau Beltzak aurrez egin beharreko lanketa bat eskatzen du. Zergatik antolatu? Zertarako? Zer lortu nahi da? Oinarrizko informazioa bildu eta saretze-lana egin behar da. Ez da pertsona bakar batek antolatzeko jaia, baizik eta elkarre eta pertsona ezberdinen artean. Horrela arrakasta lortzea errazagoa izango da. Modu horretan herrikoia bihurtzen da, herri-rik sortutako festa bat.

Haziz doa, beraz, ospakizuna.

Bai, bai. Duela zortzi urte bost udalerrri ziren. Eta orain puntuz beteko litzateke mapa.

Euskalgintzaren Topaguneak egin du bere lana, aipamena merezi dute.

Ezinbestean. Guk ikerketa egin genuen, baina tresnak eta baliabideak Topaguneak jarri ditu. Gaubeltza.eus webgunearen bidez, bereziki. Ospakizuna ikusgarri bilakatu dute.

"GAU BELTZAK HAURREKIN HERIOTZAZ HITZ EGITEKO AUKERA EMATEN DIGU"



Urki dantza taldearen emanaldia amaitu ostean, hasiera emango diote "Akerrak Okerrak" kalejirari. AIURRI

Gau Beltzan murgilduko da Andoain, hilaren 31n

Urriko azken ostegunean udalerrri osora zabalduko da euskal kutsuko ospakizuna. Aurreko bi edizioetan izan den parte-hartzeari erreparatuta, hirugarrena ere ospakizun jendetsua izango da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Kalabazak hustu eta bide bazterrean jarrita, beldurra eragitea zen aspaldiko ohitura. Etenaldia izan zen urte luzez eta, hamarkada luzeren ostean, Euskal Herriko hainbat txokotan ospakizuna biziberritzen ari dira, Gau Beltza izenburupean. Andoainen hirugarren urtea da jaia ospatzen hasi zirenetik, eta orain arteko eran-

tzuna bikaina izan da. Aurten-go ere bide beretik joango dela aurrirakusten da. Arratsaldean hasiko da ospakizuna eta osagaiak ez dira gutxi izango: txalarpata, dantza, antzezpina, kalejira, beldurraren pasabidea, zezen-suzkoa... Ekitaldiak bata bestearen atzetik kateatuko dira. Bidean, jaki goxoak dastatzeko aukera izango da: 500 laguntzat txokolatea banatuko dute Batzokiko lagunek, Irunberrin gaztain erreak emango dituzte eta Kotoi elkartean 300 talo prestatuko dituzte.

Kalabaza eta gaztaina, udazken sasoikoak

Udazkeneko fruituak dira biak ala biak, udan zaindu ondoren, urtaro honetan jasotzen baita uzta. Andoaingo ospakizunean biak dira garrantzitsu, arrazoiz ezberdinak tarteko. Gaztaina labean erreta jateko aukera izango dute Beldurraren pasabidean parte hartuko duten ausartek. Saria ala ziria? Bada, Irunberrin elkarteko saria gaztaina izango da. Aiurri astekariko orrialdeetan bilduta, udazkeneko jaki goxoaz gozatzeko aukera izango dute haur eta gaztetxoek. Kalabaza, bestalde, jolaserako erabiliko da Andoaingo ospakizunean. Izan ere, lehiaketa dibertigarria abiatu zen iaz. Kalabaza handi bat jarri zen ikusgai, eta haren pisu zehatza asmatzea zen xedea. Euro bateko prezioan, oraingoan ere zeresana emango du lehiaketak. Goikoplazan, lehenik, eta Etxeberrieta plazan, ondoren, lehiaketa parte hartzeko aukera izango da. Irabazleak sari ederra eramango du etxera: Aspilla baserriko saskia. Nola ez, garaian garaiko jakiez hornituta. Urriaren 31 iristear da. Festa handia izango da Andoainen.

GAU BELTZA

URRIAK 31

ANDOAIN

TALOA KAPELA

Txartelak 5 eurotan salgai,
urriaren 21etik aurrera
Urratsen eta Keinun.

Ez utzi azken ordurako.
Eskura itzazu kapela eta
zapia Keinu dendan.



Ospakizuna, Goikoplazan, Kale Nagusian eta Etxeberrieta plazan



Arratsaldeko 18:00tan hasiko da ospakizuna. AIURRI

Jaiaren hasiera, Goikoplazan Txokolatea jan eta gero, jaialdiko lehen zatia biribiltzeko ekitaldia izango da plazan bertan. Txalaparta doinuen ondoren, antzezpena izango da eta, jarraian, Urki dantza taldearen emanaldia.



Txokolate-beroa Goikoplazan banatuko du Batzokiak. AIURRI



Irunberri Beldurraren etxea bilakatuko da. AIURRI

Beldurraren pasabidea, Kale Nagusian Goikoplazatik "Akerrak Okerrak" kalejira abiatuko da eta Kale Nagusian barrena igarotzean, Irunberri elkartearen ipinita izango da Beldurraren etxea.



Gaztainak banatuko dituzte Irunberri elkartearen. AIURRI



Jaiari amaiera emango diote, gaueko 21:00ak aldera. AIURRI

Zezen-suzkoa, Etxeberrieta plazan Gaueko 21:00ak aldera, eguraldiak ezustekorik ematen ez badu behintzat, Lebi zezen-suzkoa aterako da Gau Beltzaren hirugarren edizioari amaiera emateko.



Taloak prestatuko dituzte Kotoi elkartearen. AIURRI

GAU BELTZA

URRIAK 31

ANDOAIN

ZURE LAGUNTZA BEHAR DUGU

Gau Beltza auzolanean antolatzen ari gara Andoainen. Goikoplazan, Kale Nagusian eta Etxeberrieta plazan bide-segurtasuna bermatzeko boluntarioak behar ditugu. Laguntza emateko prest bazaude, idatzi:

e-posta: andoain@aiurri.eus

whatsapp: 619 16 35 37










Arantzazu Miner Urdangarin, Magale-Salestarrak ikastetxeko irakaslea. AIURRI

Prest dira urnietarrak Gau Beltzaren etorrerarako

Gau Beltza ospatuko da Urnietan urriaren 31ko arratsaldean. 18:30ean hasiko da Etxeberri plazan, eta San Juan plazan amaitu. Magale-Salestarrak ikastetxea arduratzen da antolakuntzaz

Erredakzioa URNIETA

Kalera ateratzeko aitzakia eman du aurten ere Magale-Salestarrak ikastetxeak: Gau Beltza ospatuko da herrian urriaren 31 iluntzean, eta, jada, azken txanpako prestaketa-lanetan murgildu dira buru-belarri bertan lanean daudenak. “Hasi, hasi... antolakuntzan gabiltzanok irailean hasi ginen”, dio Arantzazu Miner Urdangarinek, Magale-Salestarrak ikastetxeko irakasleak. Ikasturteari ekitearekin batera dute begiz jota

urriko azken iluntzea eskolan. Hirugarren aldia dute, jada, prestaketan, eta esperientziak ematen duen jakinduriaz zein ohitura berriek dakarten ilusioaz hartzen dute Gau Beltza harrezkero. Irakasleak aurreratu duenez, aurten, askotariko adinetako 160 bat ikaslek hartuko dute parte hitzorduan, irakasleak eta gurasoak kontuan izan gabe: “Gustura jaso zuten proposamena ikasleek”. Hala, danborrada, dantzak, txikienen desfilea, suaren erritua, beldurraren pasa-

bidea eta beste hainbat geldialdi izango ditu egitarauak, Urdangarinen esanetan, “gerturazten den pertsona orok ondo pasa dezan”. Nahiz eta, irakaslearen arabera, urduritasunak nabariak izan eguna iritsi aurreko asteetan, “mimoz eta ilusio handiz egiten ari garen proiektua da eta pozik gaude”.

Beldurrezko kontaktak

Gau Beltza eta Urnieta. Bi gai nagusi horiek izan dira Magale-Salestarrak ikastetxeko DBH1



Narora Agra Rodrigo ikaslea, “Gaeuan mendian” ipuina kontatzeko prest. AIURRI

Prestaketa-lanak

Ikasturtea hasi denetik, bolo-bolo dabil Gau Beltza Magale-Salestarrak ikastetxean. Izan ere, egun berezia antolatzeko entsegu-lanetan murgilduta ibili dira. Aurreko astean, esaterako, dantzak entseatzeko aritu ziren.



Ikasle-taldea entseguan, irakaslearen esanetara. AIURRI

mailako ikasleek gau magikoaren bueltan egin dituzten ipuinen oinarria. Hala, hariari tira egin eta misterioa nahiz beldurra nagusi diren kontakizunak ondu dituzte, baita kontatu ere. Gau magikoarekin, aitzakia ederra

izan dute, gaia jorratzeaz gain, ikasgelako orduetan idazketan trebatzeko. Esate baterako, aiurri.eus webgunean, eskegita dago Narora Agra Rodrigoren “Gaeuan mendian” ipuina, autoreak berak kontatuta.



GAU BELTZA

ANDOAIN

URRIAK 31, OSTEGUNA

Eta zuek?
Zer ospatzen
duzue?

18:00 Txokolate-jatea, txalaparta eta antzezpena Goikoplazan.

18:30 Beldurraren pasabidea, Kale Nagusian.

19:00 Urki Goikoplazan eta, jarraian, "Akerrak okerrak" kalejira Goikoplaza-Etxeberrieta artean.

20:15 Talo-jatea, edariak eta musika, Etxeberrieta plazan.

21:00 Zezen-suzkoa, Etxeberrieta plazan.



“Ohikoa ez den beste begirada bat nabari da film laburrean”

UXUE BOTAS “KOMANDO MARMITAKO” FILM LABURRAREN ZUZENDARIA ETA GIDOIGILEA Hendaia Film Festival jaialdian, Eduardo Manet saria eskuratu berri du zinemagileak Ane Nafarratekin batera egindako “Komando Marmitako” film laburrarengatik



Uxue Botas Peñin andoaindarrak. UXUE BOTAS

Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN Leku eta une egokia aukeratu gero, mehatxu terroristak bihurtu omen daiteke marmitako betetako poltsa bat. Ideia hori

du abiapuntu Uxue Botas andoaindarrak Ane Nafarratekin batera ondu duen azken film laburra: “Komando Marmitako”.

Hendaia Film Festival jaialdiko Eduardo Manet saria eskuratu duzue, “Komando Marmitako” film laburrarekin eta Zine Bileran ere izan zarete Lekeition, joan den asteburuan. Ospatzeko tartea hartu al duzue dagoeneko?

Oso oso pozik gaude sariarekin! Xelebre samarra izan zen hitzordua, gainera, frantsesez izan baitzen, eta ez geneukan oso argi zein sari ari ginen jasotzen. Film onenaren sariaren parekoa da Hendaian jaso genuena. Manet artista frantsesaren omenez banatzen da. Era berean, Lekeition izan gara iragan asteburuan eta hori aitzakia gisa hartuta, ospakizunerako tartea hartu dugu!

Pozik, beraz, film laburra egiten ari den ibilbidearekin?

Jakina! Martxoan amaitu genuen film laburraren postprodukzioa, eta, udan, banaketari ekin genion. Bada, dagoeneko, hainbat jaialditan hartu dute: uztailean, Alakanten estreinatua genuen Cortesina Film Festivalean, eta, gerora, XixoArc-en, Fec Villamayor-en, Euskal Zinebileran, Hendaia Film Festivalean, Madrilgo Daganzo Trascamara jaialdian izan gara. Komediazko film laburra da, eta pixka bat beldurrez ginen, ez baikenekien zein harrera izango zen jaialdian, baina oso pozik gaude. **Pelikula aurkezten duen afixari erreparatu gero: Renault gorri eta zahar batean, lau kide; atzekaldean,**

jendea bainujantzian, hondartzako itzalkinak eta Guardia Zibila. Zerekin egingo du topo ikus-entzuleak zuen film laburrean?

Obraren zuzendarietako bat da Ane Nafarrate, baita gidoigilea ere. Hala, bere familian gertatutako pasadizo batean dago oinarrituta. Nahiko freskoa eta dibertigarria den film labur batekin egingo du topo ikusleak, egoera-komedia bat delako. Eta, beno, zaila da filmak lantzen duen gaia, normalean, dramatik jorratua, oso iluna. Guk buelta bat eman nahi izan diogu horri, eta beste ikuspuntu batetik kontatu. Finean, 1998. urtean Espainian euskaldun izatearen beldurra kontatzen du filmak, nolakoa zen euskaldunak Euskal Herritik ateratzea. Pixkat bat horren erretratua egiten ahalegindu gara.

Oso oso fikzionatuta dago, era berean, Anek bere familian txikitatik entzundako istorioa. Berezko egoera ez zen Benidormen gertatu, ez eta guk filmerako aukeratu dugun egunean ere, Miguel Angel Blancoren hilketaren urteurrenean. Baina, beno, berak etxean entzundako pasadizoa oinarri hartuta, geure istorioa sortu dugu. Horretan, familia bat da protagonista: Maite, haurdun dagoen ama, bere senarra Juan txo, sei urteko alaba Uxue, eta amona Conchi. Lau pertsonaia horiekin Benidormera egingo dugu bidaia. Hara iristean, gora-behera ibiltzen dira maletarekin, autoa ezin aparkatu. Oporretara joaten zarenean sortzen den kaos hori ageri da; nahaste berraste horretan, poltsa bat ahazten zaie kalean. Hori da gure istorioaren premisa. Hasiera-hasieratik ikusten da zein izango den obraren tonua eta nolakoak izango diren pertsonaiak. Oso korala da film laburra, gure ustez, lau pertsonaiek osatzen dutelako istorioa eta beraiekin murgiltzen garelako udako egun horretan. **Nork osatzen du Marmitako Komandoa?**

Lehen zertxobait aurreratu dudan arren, gure Marmitako Komandoa honako hauek osatzen dute: Esti Curielek gorpuztu du Maite ama da, eta pixka bat dago eta ez da oso ondo eramaten amaginarrebarekin. Izan ere, astuna da Conchi amona (Ane Guisasola), Donostiako aberaskumea, egunero ile-apaindegira joaten dena. Juan txo familiako

senarrak (Jon Ander Alonso), batzuetan, bere ama Conchirekin meneko harremana du, denari baietz erantzuten dio kontrarik gabe. Uxue alabak (Anuk Puertolas) oso harreman estua du Conchi amonarekin, miresten du. Gurasoekin ere harreman ona du eta jakin-min handiko umea da. Familia bitxia osatzen dute lauek, eta beraiek osatzen dute komandoa. Bigarren mailako pertsonaiak ere badaude, guardia zibil bat, bizilagun bat... **Koloretsua eta dibertigarria da kartela. Horrelakoa al da filma ere?**

Lander Baranak egin du eta oso argi izan genuen hasieratik nolakoa nahi genuen izatea kartelaren diseinua, karikatura kutsuarekin. Eta, bai, horrelakoa da filma edo, gutxienez, horrelakoa izatea ahalegindu gara; kolore anitzeko film labur bat egitea izan da asmoa. Aurretik esan bezala, garaia hori izanda ere eta egoera zegoen bezala egon arren, zentzugabekeriaren bidetik jo dugu. Izan ere, urte horietan, gauza zentzugabe asko pasa ziren, eta, horren zentzugabeak izan ziren batzuk, non gaur egungo perspektibarekin begiratuta, pasadizo dibertigarri bilakatu baitiren. Horrelako istorio bat kontatu nahi genuen, komediatik, zerbait koloretsua izan zedin. Udan dago kokatua eta sasoi horretako argitasuna irudikatu nahi genuen. Bestalde, pelikula Benidormen kokatzeak eragin zuzena izan du, koloreen eztanda delako hiria, bertan, aniztasuna da nagusi.

Benidormen kokatzen da istorioa, baina zuek Bakion filmatu duzue. Nola bihurtu Bakio Benidorm?

Hasiera batean, Benidormera joatea zen gure asmoa. Gure ametsa zen, amets utopikoa, noski, aurrekontuak ez baitzuen horretarako aukera ematen. Erronka handia izan zen Benidorm bat Euskal Herrian topatzea. Horrela, lokalizazio bila hasi ginen, itsasertzeko herrietan: Zarautz, Hondarribi... Baina ez zegoen Benidormeko skyline-ik, ez zegoen etxe-orratzik. Hala, denbora pixka bat eskainita, eta Google Maps aplikazioan nabigatuta, Bakion, bi eraikin, bi dorre oso altu zeudela ikusi genuen. Niri hala ez iruditu arren, bertakoentzat oso itsusiak omen dira eta, are gehiago, Bakiori Euskal Herriko Benidorm deitzen omen diote, bi dorre horien omenez. Bata bestearen

parean daude kokatuta, eta, erdian, plaza bat. Autoentzako sarbidea izatea behar genuen, bai ala bai; gure asmoekin bat etor zitekeela pentsatu genuen eta hor grabatu genuen, hor sortu genuen gure Benidorm! **Lehen aipatu bezala, 1998. urteko uztailearen 13an irudikatzen duzuen kontakizunaren eguna. Zergatik?**

Taldean eztabaidan ginela, aurkikuntza barregarri samarra egin genuen. Hain justu ere, Miguel Angel Blancoren hilketaren urteurrena izan zen 1998. uztailearen 13. Gure istoriorako testuinguru politikoa sortu beharra zegoen, garaia ulertu beharra baitago, kontakizunak zentzua izan dezan. Horrela, oso egun bereizgarria dela iruditu zitzaigun, eta bat zetorren istorioarekin. Bilaketa-jardunean ginela, zehazki egun horretan futboleko munduko txapelketa finala izan zela ikusi genuen, Frantzia. Eta, gainera, Frantziak berak jokatu zuen. Juantxoaren pertsonaia eraikitze oso ondo zetorkigun. Bestalde, Benidorm bezalako hiri batean atzeritar pila egoten da eta beti izan da oso hiri turistikoa. Horrek guztiak egoerari are garrantzi handiagoa ematen ziola pentsatu genuen eta horrela kokatu genuen geure istorioa 1998ko uztailearen 13an.

Ane Nafarratekin batera zuzendutako eta idatzitako obra da. Ez da elkarrekin lan egiten duzuen lehen aldia, ordea. Aitzitik, aspaldiko lagunak zarete.

Izatez, Anerekin zuzendutako lehen obra profesionala da. Unibertsitatetik ezagutzen dugu elkar eta bertan ere batera zuzendu genuen film labur bat, baina proiektu akademikoa izan zen; ez zerbait profesionala, alegia. Gidoigintzari dagokionez, lehenago ere egin izan dugu lan elkarrekin. Bikote polita osatzen dugu, oso ondo ulertzen dugu elkar, elkarren osagarri gara. Bi buruk pentsatzen dute eta lau begik ikusi, baina, era batera edo bestera, beti iritsi ohi gara adostasunera; nahiko modu organikoan egiten dugu lan. Banaketa fasean gaude orain, elkarren babesa eskertzen dugu, bakarrik ez sentitzeko. Bi pertsona gaude erabakiak hartzen eta elkarriketa sortzen du horrek gu bion artean. Oso polita da eta oso gustuko dut berarekin lan egitea.



"Komando Marmitako" film laburraren eszena bat: Conchi, Juantxo, Uxue eta Maite. U.BOTAS

Gainerako lantaldea ere gertuko omen zenuen aurretik.

Proiektuaren lehen haizak "Hemen"-ek sorturiko programa batean erein genituen. Unibertsitateko beste lagun batzuekin izena eman genuen bertan: Mercedes del Alma produkzio zuzendaria, Alba Gonzalez (ezin izan zen egon grabaketan beste pelikula batekin zebilelako) eta Irati Rodriguez arte zuzendaria. Lantaldeko beste batzuk ere lagunak zein ezagunak genituen, baita pasatako kontaktuak ere. Oso talde polita osatu dugu, eta oso eskertuta nago beraiekin. Gogorra izan zen grabaketa, baina mundu guztiak bere onena eman zuek proiektua ahalik eta onena izan zedin. Berririo errepikatuko nuke lantaldea.

Elkarren artean dugun konfiantza nabari da obraren azken emaitzan, bai eta gauzak ondo egiteko nahia eta desira ere. **Urteen poderioz testuingurua aldatzen ari den arren, oraindik orain,**

gizonezkoak dira nagusi, zinemagintzan, erabaki-postuetan. Zuen obran, oster, ez da hori gertatzen. Nahita hartutako erabakia al da?

Aipatu bezala, Hemen elkarteko "Aukera" mentoretza-programan egon ginen. Beste zinemagileen proiektuak ezagutzeko aukera izan genuen eta oso lagun onak egin genituen bertan. Erabaki-postuetan emakumeak egotea nahi genuen eta, posible zen neurrian, gehiengo emakumezkoa izatea lantaldean. Nire ustez, nabaritu zen hori grabaketak iraun bitartean. Elkarri lagundu beharra diogu eta oso garrantzitsua zen guretzat emakumez osatutako lantalde tekniko bat sortzea. Beraz, bai, nahita hartutako erabakia izan zen.

Edukia, diskurtsoa, planoak, musika, zertzeladak... Horietan ere nabarituriko da erabakiak hartzen dituenaren begirada.

Guretik asko du film laburrak. Gure adinaren bueltako emaku-

mea da argazki-zuzendaria, baita soinu-banda sortu duena ere... Bai, asko nabari da gure artean nola egin dugun lan, nola ulertu dugun elkar. Ohikoa ez den beste begirada bat nabari da film laburrean: dibertigarria, alai, koloretsua, errebeldea, makarra...

Dozena bat minutuko lana da. Ez da lan makala izan behar istorio bat, hasi eta buka, horren denbora laburrean kontatzea.

Istorio batek hiru prozesu igarotxo ohi ditu: batetik, gidoian, istorio bat kontatzen duzu; bestetik, grabaketan, beste istorio bat kontatzen duzu; eta, azkenik, muntaketan, beste bat. Hiru pauso horietan erabakitzen duzu zer kontatu eta nola kontatu. Muntaketan konturatzen zara zerk funtzionatzen duen, zerk ez, zein momentutan galten duen erritmoa pelikulak, noiz sartu erritmoa... 11 minutuko film laburra da "Komando Marmitako", eszena oso bat kendu dugu, eta hasierako gidoitik ere aldaketak egon dira, bidean hartu ditugun erabakiengatik. Askotan gertatzen zaigu geure proiektuekin maitemintzen garela eta dena dela oso idilikoa. Baina kritikoa ere izan behar duzu eta objektiboki esan "bale, zati honek ez badu funtzionatzen, ez dugu jarriko". Alegia, erabaki hotzak ere hartu beharra dago. Adibidez plano ederrak genituen eszena batean, oso polita zen irudia, baina istorioaren erritmoa asko moteltzen zuen eta hori gabe filmak funtzionatzen

zuen. Hamabost orrialdeko gidoia genuen hasieran, eta, hor-taz, 15 bat minutuko zerbait izango genuela aurreikusten genuen. Azkenean 11 minututan gelditu da, eta nahikoa da istorioa kontatzeko eta ulertzeko. Zaila da, baina oso erronka polita, eta jakin behar da istorioak behar duten denboran kontatzen, askotan saiasten garelako gauzak laburtzen edo luzatzen, baina istorio bakoitzak bere erritmoa behar du, ulertua izan dadin.

Film laburra da "Komando Marmitako", baina beste zenbait kontakizun-moldetan aritu zara lanean. Zentzen sentitzen zara erosoan?

Berez, zuzendari eta gidoilari moduan, film laburretan dut, soilik, esperientzia. Tekniko gisa, berriz, telesailetan, pelikuletan lanean, arte departamentuan aritu izan naiz. Ez da gauza berbera lanpostu batean edo bestean egotea. Tekniko gisa, ez zara prozesu guztian egoten. Oraingoan, bai, bi urtez izan baikara lanean proiektua gauzatzeko. Banaketa-fasean gaude orain; espero dut horrelako beste aukera gehiago izatea aurrerantzean. Oso polita izaten ari da esperientzia ta errepikatze gogoz nabil. Hala ere, tekniko moduan, arte departamentuan, oso-osu gustura egiten dut lan, oso gustuko baitu lana. Egia da telesailetan eta film-luzeetan egon naizela lanean. Ez da gauza berbera, film labur batekin alderatuz gero. Zuzendaritza-jardunean oso garrantzitsua da departamentu guztiak ulertzea eta horietako bakoitzean zer egiten den ezagutzeko; bada, teknikari izateak profesionalki haztea ekarri dit. Gaur egun, esaterako, pelikula batean nago oso gustura lanean, arte departamentuan. Bestalde, ordu-luzez grabaketan murgilduta egonda, oso zaila da proiektu pertsonaletan sartzea, gidoiak idazten hastea...

Aukera izango al da aurrerantzean ere "Komando Marmitako" pantaila handian ikusteko?

Aurrerantzean ere beste zenbait jaialditan izango gara: ZINEBI Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia, Zaragozako Nazioarteko Zinema Jaialdia, Vitacurako Film Laburren Nazioarteko Jaialdia, Soriako Soriako Film Laburren Nazioarteko Lehiaketa...



Film laburraren "b" aldea, kamararen atzekaldea. U. BOTAS



Malen Osa Ansa, helmugara iritsi aurretik. TONTORRETIK

Gurutze ama, gogoan

Goi mailako kirolaria da Malen Osa Ansa oñatiarra. Gurutze Ansa, ama, andoaindarra udan zendu zen

Erredakzioa ANDOAIN

Zeresana eman du asteburuan Ascona-Locarnon (Suitza) jokatu den Munduko Golden Trail Series-etako finalak utzitako irudi batek. Bertan ageri da Malen Osa, kamiseta bat eskuetan duela, helmugaratzen ari den bitar-

tean. Ama gogoan hartu zuen –Gurutze Ansa andoaindarra–, une hunkigarria osatuz. Zirkuituko puntuak batuta, sailkapen orokorrean hirugarren sailkatu da Salomon etxeko korrikalaria. Ezin ahaztu ere Zegama-Aizkorrin egin zuen bigarren postua.



Euskalduna. AIURRI

Euskalduna lidergotzan da, Gorengo mailan

Lehen bost jardunaldietan lau garaipen eta berdinketa bat lortuta, lidergotzan da Euskalduna taldea.

SAILKAPENA

GORENGO ERREGIONAL MAILA

1	Euskalduna	13
2	Ostadar	10
3	Orioko	10
4	Roteta	9
5	Astiggarraga	9

Ganbara Saski Taldeak hitzaldia antolatu du

Ostiral honetan, urriak 25, Carmelo Cabrera Real Madrideko eta selekzioko jokalaririk ohiak hitzaldia eskainiko du Allurralde kiroldegian. Goi mailako jokalaria izan zen kanariarra. Antolatzaileek adierazi dutenez, laguntasuna, jokalarien arteko laguntzak eta konpromisoa hizpide izango ditu hizlariak. Arratsaldeko 18:30ean hasiko da.



Nerea Arruti, aizkoran, aurreko igandean. BARREN

Hirugarren txapela, jarraian

Nerea Arrutik alde handia atera zion Nerea Sorondo txapelkun-ordeari, Elgoibarren jokatu zen finalean

Erredakzioa URNIETA

Nerea Sorondo, Oihana Fernandez de Barrena, Laiene Pikabea, Lucia Orbe eta Irati Astondoa izan zituen aurkari Nerea Arrutik Lehen Mailako Emakumezkoen Aizkolari Txapelketan. Elgoibarren izan zen finala,

aurreko igandean. Arruti sasorik onenean dagoen aizkolaria dela erakutsi zuen, eta hirugarren aldiz jantzi zuen txapela. 36 ontzako bi enbor, 45eko beste bi eta bi kanaerdiko moztu zituen (17:33). Nerea Sorondo beratarrar bigarren izan zen (21:05).

Abiatu da binakako txapelketa nagusia

Urriza-Larrañaga eta Segurola-Barrenetxea IV izan dira garaipena eskuratzen lehenak

Erredakzioa URNIETA

Lehenengo Mailakoan lau bikote lehiatuko dira: Barrenetxea IV-Segurola, Ezkurra II-Azpiroz, Ansa II-Juanenea eta Urriza-Larrañaga. Antolatzaileen ustean, ez dago faborito argirik.

Bigarren mailako txapelketan bost bikote ariko dira: Aldabe-Aiestaran VI, Jabalera-Apezetxea, Irazu-Zaldúa I, Gurrutxaga-Martirena eta Goikoetxea V-Zubiri. Partidak set formatuan jokatuko dira, 15 tantuko bi set-era.



Lehen Mailako eta Bigarren Mailako lehiakideak, aurkezpen ekitaldian. ORIAMENDI



AIURRI

Larrosa kolorea gailendu da

Bularreko eta ginekologiako minbiziek eragindako Gipuzkoako emakumeen Katxalin Elkartearen alde diru-bilketa egiten aritu ziren Andoingo kaleetan, aurreko larunbatean. Herriko hainbat boluntario izan ziren eginkizun horretarako. Argazkian, Marci Guerrero, Arantxa Astibia, Fatima Baez, Monica Gonzalez, Isabel Sanchez, Mertxe Esnaola, Lola Gonzalez eta Maria Luisa Etxeberria ageri dira, Eskola kalean. Egun seinatuarekin bat eginez, aste honetan Andoingo

udaletxearen aurrealdea kolore larrosaz argiztatu dute. Data bakarra baino, bi egun izan dituzte gogoan: urriaren 15a Jaioberrien Heriotzaren Nazioarteko Eguna delako; eta, urriaren 19a, Bularreko Minbiziaren aurkako Munduko Eguna delako.

Herriko merkatariek euren aldetik kolore bereko puxikak jarri dituzte erakusleihoetan. Ez dira gutxi izan, Salkinen eskutik, ekimenarekin bat egin duten dendariak.



AIURRI

Eskola Kirolako lehen jarduera

Lehen Hezkuntzan abiatu da Eskola Kirola ekimena, eta ikastetxe bakoitzean lehen prestakuntza saioen ostean, ekintzekin hasi dira. Aurreko larunbatean egin zuten lehen Andoainen, zehazki, Ubitarten. Andoingo Txirrindulari Eskolako nesken eskutik trebaketa saio ugari egin zituzten. Eta, amaieran, atletismo pistan lasterketatxoa egin zuten.



AIURRI

Bertsolari txapelketa

Errenteriako Lekuona Fabrikan egin zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako bigarren final-laurdena. Bertan parte hartu zuen Urnietan bizi den Unai Gaztelumendik. Beñat anaia nagusitu zen eta, ondorioz, finalurrekorako txartela eskuratu du. Unai, aldiz, laugarren sailkatu zen. Lehen finalurrekoan, Eibarren, Alaia Martin nagusitu zen.



BERTSOZALE



AIURRI

Laurogeiko hamarkadako musikaren nostalgikoak

Badira urteak Salkin merkatarien elkartek 80ko hamarkadako ospakizuna egiten duela Andoainen. Udalerriko hainbat taberna buru-belarri murgiltzen dira ekimenean, tabernak giro hartako musikarekin eta dekorazioarekin apainduz.

Tabernetan bezala, musika kalean entzun zitekeen Goikoplazan, Zumea kalean eta Zumea plazan aritu ziren disko-jartzaileen eskutik. Gaueko hamaikak aldera amaitu zen Zumea plazako diskofesta, eta jaiak jarraipena izan zuen tabernetan.



Urnietako
udala



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ERAKUSKETA

ANDOAIN Arrakala

Berrerabilitako lauzez, margo eta buztinaz osatutako bilduma.
18:30, Irekiera-ekitaldia.
Urriak 25, ostirala.

EKIMENA

URNIETA Parte-hartzea

2025eko aurrekontuko 150.000 euro bideratzeko parte-hartze prozesua zabalik da. 16 urtetik gorakoek botoa eman dezakete.
Azken eguna: Urriak 27, igandea.

IRTEERA

ANDOAIN Irteera

Txirringandoain taldeak antolatuta, edonorentzat irekitako irteera izango da.
09:30, Zumea plaza.
Urriak 26, larunbata.

ZERBITZUA

ANDOAIN Udal Liburutegia

Asteburuetan zabalik da.
09:00-13:00, Udal Liburutegia.

LEHIAKETA

ANDOAIN Argazki-lehiaketa

Andoaingo Udalaren 2025eko egutegia osatzeko lehiaketa. Gaia: "Merkataritza Andoainen".
Epea: Urriak 31.



Porrotx eta Marimotots pailazoak. AIURRI

ANDOAIN Irri jaia

Kulturgunean eta Plaza Morean Irria aldizkariaren urteurrena ospatuko dute, Porrotx eta Marimotots eta herriko hainbat eragileren parte-hartzearekin. Besteak beste, herriko musika eta dantza eskolak.
Bastero eta Plaza Morea. Urriak 27, igandea.

ANTZERKIA

ANDOAIN Egun zoragarriak

Pabilioi 6-Gazte Konpaniaren antzezlanak.
19:30, Basteroko auditorioa.
Urriak 25, ostirala.

URNIETA Aurre-estreinaldia

"Alguien volo sobre el nido del cuco" lan ezagunaren egokitzena egin du Nueve teatro konpainiak.
19:00, Sarobe.
Urriak 26, larunbata.

URNIETA Aurre-estreinaldia

"La Cantante Calva", Donostiako antzerki talde ezagunaren eskutik.
19:00, Sarobe.
Urriak 27, igandea.

OSPAKIZUNA

ANDOAIN Gau Beltza

18:00, Goikoplazan hasita.

URNIETA Gau Beltza

18:00, Goikoplazan hasita.
Urriak 31, osteguna.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Soy Nevenka

Urriak 26, lar.
 19:30.
 Urriak 27, ig.
 19:30.
 Urriak 28, astel.
 17:00, 19:30.

Transformer one


Urriak 26 eta 27.
 17:00.

Robot Salvaje

Azaroak 1, 2, 3.
 17:00.

La habitacion de al lado

Azaroak 1, 2, 3, 4.



SINOPSIS

Soy Nevenka

Zuzendaria: Iciar Bollain. **Aktoreak:** Mireia Oriol, Urko Olazabal, Ricardo Gomez, Carlos Serrano, Lucia Veiga, Luis Moreno...
Herrialdea: Espainia (2024). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, sexu-jazarpena. **Iraupena:** 112 m.

Jazarpena ardatz duen kasua, Iciar Bollainen eskutik

2000. urtean, Nevenka Fernandez 24 urteko gaztea Ponferradako Udaleko Ogasun zinegotzia zen. Jazarpen gupidagabea jasan zuen, bai sentimentala bai profesionala, alkatearen aldetik. Nevenkak salaketa jartzea erabaki du,

baina badaki oso prezio altua ordaindu beharko duela. Benetako gertakarietan oinarritutako istorioa da. Protagonista aitzindari bihurtu zen, eragin handiko politikaria sexu-jazarpenagatik epaitegietara eraman zuelako.

Informazio-karpa, ostiral honetan, Urnietan

2025eko Udal aurrekontuko 150.000 euro zertara bideratzeko parte-hartze prozesua zabalik da Urnietan. Udal teknikariek herri-tarrek lehen fasean egindako proposamenetatik hamar lehenetsi dituzte eta horien artean hiru hautatu behar dira. Urnietako hamasei urtetik gorakoek botoa eman dezakete.

Parte hartzeko epea igande honetan amaituko da. Bideak ohikoak dira: kutzak, postontziak, webgunea eta app-a.

Informazio-karpa, ostiral honetan

Goizean, Etxeberri plazan eta, arratsaldean, San Juan plazan. Bozkatzeko aukera izango dute karpara hurbiltzen direnek. Orduetgia:

- Etxeberri plaza: 10:00-14:30.
- San Joan plaza: 17:00-20:00.

URRIAK 26 LARUNBATA | 16:30ETIK AURRERA
 GALARRETA JAI ALAI HERNANI

1. PARTIDA | 19:15

IRAZU • ZALDUA vs
 GURRUTXAGA • MARTIRENA

2. PARTIDA | 19:45

URRIZA • LARRAÑAGA vs
 SEGUROLA • BARRENETXEA IV

3. PARTIDA | 20:15

ANSA II • JUANENEA vs
 EZKURRA II • AZPIROZ

BARBERAK ENTRAJAS